


DESGAITASUNA ETA LEGE-ERREFORMA: AURRERAPAUSSOA EDO GALDUTAKO AUKERA?



ARABA

EGINAREN EGINEZ

Arabako desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

GIPUZKOA

AGADELPRISE

Gipuzkoako linfedema primario edo sekundarioak eta lipedemak erasandakoen elkarte

AGAER

Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarte

AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte

AGI

Gipuzkoako ikusmen urria duten elkarte

ANAIIDIA

Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetasuna

ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte

BEGIRIS

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte

BIZI-BIDE

Asociación Guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, encefalitis miálgica múltiple y electrohipersensibilidad

KOXKA

Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte

LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte

BIZKAIA

ACCU

Bizkaiko Crohnen eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte

ADELA

Alboko esklerosi amiotrofi-koaren Bizkaiko elkarte

ADELES

Bizkaiko Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte

ADEMBI

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte

APDISA

Desgaitasuna duten pertsonen Santurtziko elkarte

AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte

ALCER

Bizkaiko giltzurruneko gaixotasunen aurkako elkarte

ARGIA

Bizkaiko ostomizatuen elkarte

ARNASA BIZKAIA

Euskal Herriko Fibrosis Kistikoa-ren Elkarte

ASEBIER

Arantza bifidoa eta hidrocefalia gaixotasun arraroen Euskadiko elkarte

ASHUBI

Asociación Huntington Bizkaia

ASPANOVAS

Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte

BENE

Bizkaiko eritasun neuromuskularen elkarte

BIDARI

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Ermuko elkarte

BIZKEL

Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak

BIZADELPRISE

Lifedema primario, sekundarioak eta Lipedema Eragindakoen Elkarte

CODISFIBA

Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

EFELA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Arratiako elkarte

EMAN ESKUA

Fibromialgia eta neke kronikoa-ren Bizkaiko elkarte

FRATER

Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte

LEVAR

Artritis reumatoidea duten pertsonen Bizkaiko elkarte

RETINA BIZKAIA BEGISARE

Asociación de distrofias hereditarias de la Retina de Bizkaia

Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.



ARABA

Simón Bolívar plaza, 9 behea
Tel.: 945 22 55 16
Fax: 945 06 18 09
01003 VITORIA-GASTEIZ
info@eginez.org
www.eginez.org



BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66
Fax: 94 405 36 69
48014 BILBAO
fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com



GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5 behea
Tel.: 943 31 67 70
Fax: 943 31 63 79
20018 DONOSTIA
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

Argitaratzailea:



L.G.: Vi-123/01

Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erroka Demografikoaren Sailaren dirulaguntzarekin egindako argitalpena.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERROKA DEMOGRAFIA-AREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRAFICO

Inprimitzeko erabilako materiala:



Papel parcialmente
reciclado procedente
de fuentes
responsables

Aurkibidea

4

DESGAITASUNA ETA
LEGE-ERREFORMA:
**AURRERAPAUSSO ADO
GALDUTAKO AUKERA?**



6

Etxebizitzarako sarbidea bermatzeko lege-
proposamena

7

Enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuetako
egokitzapenak

ARABA

8

Enplegu publikoaren
aldeko epaia

Gune
Soziosanitarioa

9

Irisgarritasuna
probintzian

10

Bizimodu indepen-
dentearen bulegoa
ireki da araban

eginaren eginez
elkarteak aurrez
aurreko jarduerari
ekin dio berriro
Laudion

BIZKAIA

11

In Memoriam Juan
Carlos Sola

Fekoorren estrategia
eraikitzen

12

Osasuna eta ikusga-
rritasuna: bizi-tza duin
baterako bi eskari

Laguntzailea doan
garraio publikoan

13

Arbolarte: integrazio-
rako eta gaikuntza-
rako zentroa

Ezintasun iraunko-
rratutako pentsioei
buruzko gida

GIPUZKOA

14

Hezkuntza
inklusiborako
eskubideari buruzko
Ohar Orokorra

Renfe aldiriei buruz
parte hartzeko
prozesua

15

Oinezkoen
pasabideen
irisgarritasun falta
salatu nahi dugu

Erabakiz
proiektuaren
webgunea

16

Terrazei buruzko
ordenantzei
egindako alegazioak

Zarauzko
hondartzako
erabilera eta
jardueren ordenantza

Desgaitasuna eta lege-erreforma: aurrerapausoa edo galdutako aukera?



Joan den uztailaren hilean, Diputatuen Kongresuan Lege Proiektu bat aurkeztu zen, desgaitasuna duten pertsonen eskubideetan eragina duten hainbat arau aldatzen dituen.

Testuinguru politikoak ekimen legegilearen bideragarritasun eraginkorra zalantzan jartzen badu ere, egoki deritzogu egungo araudiarekin alderatuta dakartzan berritasun nagusiak partekatzeari:

- Kapazitismoaren, desinstituzionalizazioaren eta interseksionalitatearen **definizioak** jasotzen dira.
- **% 33ko desgaitasuna** dutela joko da mendekotasun-egoera I. mailan aitortua duten pertsonak; **eta % 65ekoa**, mendekotasun-egoera II. eta III. mailetan aitortua duten pertsonak.
- **Bizitza independentea** eta komunitatean sartzeko **eskubidea** espresuki aitortzen da.
- “Enplegu-zentro bereziak” desgaitasuna duten pertsonen **lan-inklusiorako “enpresak”** izatera pasatzen dira.
- **Arau-hauste larritzat** joko da “pertsona bat publikoki erakustea bere desgaitasunagatik (...), publikoaren irria, iseka edo trufa eragiteko, giza duintasunari zor zaion errespetuaren aurkako moduan, penal delitu ez denean”.
- **Berdintasuna eta diskriminaziorik eza** sustatzen dira desgaitasuna duten pertsonentzat adimen artifizialaren sistemek dituzten ondorioei dagokienez.
- **Unibertsaltasunezko Irisgarritasuna Sustatzeko Estatuko Programa** sortzen da.
- **Pertsona zaintzaile ez-profesionalei** hainbat eskubide aitortzen zaizkie enplegu-politiketan, kontziliazioan, eta abarretan.

- **Etxeko ingurunean ematen den prestazio ekonomikoan**, salbuespenez, **ez da bizikidetza eskatuko** mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren eta zaintzaile ez-profesionalaren artean ordainsaririk gabeko zaintzarako konpromisoa badago eta biak elkarren ondoko etxebizitzetan bizi badira.
- Laguntza pertsonaleko **prestazio ekonomikoan ezabatzen da gutxieneko adinari** buruzko edo hezkuntzara edo lanera bideratutako jardueri buruzko edozein eskakizun.
- **Prestazio ekonomiko** bat sortzen da, **etxebizitzetan arreta** eta **laguntza integralak** jasotzen dituzten pertsonei zuzendua.
- **Autonomia pertsonalerako laguntza-produktuen hornidura-zerbitzua** txertatzen da.
- **Prestazioen kostuan** onuradunen partaidetza zehazteko irizpide multzo bat ezartzen da.
- Irisgarritasun baldintzak bermatzeko erai-kinen jabetza horizontalari eta obrei buruzko araudia ia bere horretan mantentzen da, salbu ondoko aldaketa hauek:
 - **Irisgarritasuna** eta **egokitzapen arrazoizkoak** modu argiagoan berreitzen dira, haien konfigurazio desberdinaren arabera.
 - Interesdunak laguntza eta dirulaguntza deialdien inguruko informazioa aurkeztu ahal izango du, eta hauek eskatzeko obligazioa izango du.
 - Emandako laguntzek eta dirulaguntzek eskatutako obren eta **jarduketan kostuaren % 70era** iristen direnean, haien **exekuzioa derrigorrezkoa** izango da.
 - Komunitateak **obrak eta jarduketak** gauzatzen ez dituenean, interesdunak eskumena duen **agintaritzak judizialari** eska diezaioke haien gauzatzea agintzeko behar diren erabakiak eman ditzan.

→ **Obra eta jarduketak derrigorrezkoak** izango dira, laguntzek kostuaren % 75era iritsi ez arren edo kostuak ezarritako muga ekonomikoa gainditzen badu ere, gehiegizko zatia eskatzaileek beren gain hartzen badute.

- Administrazioek beren aurrekontuetan **nahikoa kredituz** hornituko dituzte irisgarritasun unibertsalaren arloan etxebizitzetako erai-kinen erreforma, birgaitzea eta egokitzapenerako laguntza eta dirulaguntza programak finantzatzeko.
- Ezingo da desgaitasuna duten pertsonak diskriminatu **aseguru-kontratazioan**.

Elkarteanetik ekimen legegilearen zenbait alderdi positibotzat jotzen ditugu, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen inguruko Konbentzioaren betetze osoan aurrera egi-tea bilatzen dutelako.

Hala ere, uste dugu **erreformak ez duela behar adinako anbizioa** desgaitasuna duten pertsonen segregazioa eragin duten politikak gainditzeko; horrenbestez, aukera galdua izan da politika eraldatzaileak bultzatzeko.

Enpleguaren arloan, merkatu laboral irekian, inklusiboan eta irisgarrian lan egiteko eskubidea bermatzeko duten neurriak bultzatu beharrean, lege-erreformak enplegu babestuen sustapena areagotzen jarraitzen du desgaitasuna duten pertsonen lan-aukera nagusi gisa. Horren adibide da **enplegu zentro berezien "zuritzea"**, desgaitasuna duten pertsonen lan-inklusioko enpresatzat izendatuz, eta enplegu arruntera sartzea sustatzeko neurriak planteatu gabe.

Bizitza independentearekin lotuta, positiboki baloratzen dugu erreformak kontzeptualki egiten duen aurrerapausoa, Konbentzioaren 19. artikulua eraginkortasunez aitortuz. Hala ere, definizioetatik eta printzipiotatik harago, ez dira lantzen bizitza independentea gauza-

tzeko funtsezkoak diren laguntza pertsonala bultzatzeko oinarrizko gaiak.

Horrela, **laguntza pertsonalaren kostuen estaldura osoa** bermatuko duen prestazio baten aitorza, laguntza pertsonaleko zerbitzua kontratatzeko baliabideen diseinua, laguntza pertsonalerako prestakuntza espezifikoa, figura profesional horren Gizarte Segurantzaren behar bezala txertatzea, edo lan-baldintza duinen ezarpena bezalako gaiak ez dira aintzat hartu lege-erreforma honen ekimenean.

Era berean, irisgarritasun unibertsalaren arloan, neurri bultzatzaile batzuk ezartzen dira, positibotzat jo daitezkeenak, hala nola laguntzak eta dirulaguntza-programak finantzatzeko kredituei bide emateko obligazioa, etxebizitzetako eraikinen erreforma, birgaitzea eta egokitzapena barne, edo Unibertsaltasuneko Irisgarritasuna Sustatzeko Estatu Programa ezartzea. Baina konkretutasun faltak, **aurrekontu-dotazio esplizito ezak** eta berme-mekanismoen gabeziak neurri horiek benetako eraginkortasunik gabe uzten dituela eragin dezakete.

Era berean, **Jabetza Horizontalaren Legearen erreforma minimoa eta eskasa** da diskriminazio eta bazterketa kasu ugari gainditzeko; izan ere, askotan ez da bermatzen etxebizitzan irisgarritasun unibertsalerako eskubidea, komunitateak beharrezko obrak eta esku-hartzeak egiteari uko egiten diotenean.

Azken batean, informazio honen bidez desgaitasunaren arloko lege-erreformaren alderdi positiboak partekatu eta balioan jarri nahi ditugu, baina baita gure kezka eta desadostasuna ere agerian utzi, nahikoa anbizio eta ikuspegi eraldatzaile eta inklusibo ez duelako; eta hori etorkizunean desgaitasunaren arloko politika eta neurrien garapenerako erabakigarria izan daitekeen prozesu legebile batean gertatzen da.

Etxebizitzarako sarbidea bermatzeko Lege Proposamena



Azken hilabeteetan, Eusko Legebiltzarrak etxebizitza, lurzoru eta hirigintzaren arloko ezohiko neurriei buruzko Lege Proposamena izapidetu du. Helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzarako sarbidea bermatzeko premiazko neurriak ezartzea, lurzoruaren mobilizazioa, prozeduren arintzea eta higiezinaren merkatuaren arautzea bidez.

Proposatutako testua aztertu ondoren, urrian hainbat proposamen aurkeztu genizkien Legebiltzarreko taldeei, desgaitasuna duten pertsonen etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat izateko eskubidea bermatzeko.

Bizitza independentea izateko eskubidea Konbentzioan jasotako markoan kokatu ondoren, taldeei honako eskaera nagusiak helarazi genizkien:

- Etxebizitza egokituaren izaera ez-galtzea sustapen pribatutan.

- Mugikortasun murriztua duen pertsona esleipendunaren ezaugarrietara egokitu-ta egotea gordetako etxebizitzak.
- Bizitza independenteko programa, proiektu edo esperientzietara sartzen diren desgaitasuna duten pertsonentzat diskriminazio positiboko neurri osagarriak ezartzea, etxebizitza eskuratzeko.
- Bizigune Etxebizitza Hutsaren Programan, baita Alokabidek bultzatutako programek osatzen duten multzoan ere, etxebizitza egokituak egotea bermatzea.

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa arautzen duen Dekretuan jasotako ostatu/pisuen zerbitzuak etxebizitza egokituak barne hartzea bermatzea.

Azken batean, aurkeztu ditugun proposamenek laguntzen dute Konbentzioan jasotzen den desgaitasuna duten pertsonen etxebizitzarako eskubidea bermatzen, eta aukera ematen dute gizarte inklusiboago eta irisgarriago baten baitan parte-hartzea eta inklusioa sustatzeko.

Enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesuetako egokitzapenak

Uztailan, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen PJC/804/2025 Agindua, uztailaren 23koa, desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu publikoko hautaketa-prozesuetan bitarteko eta denboren egokitzapenerako, eta beste egokitzapen arrazoizko batzuk egiteko irizpide orokorrak ezartzen dituen.

Egokitzapenak honako hauek izan daitezke:

- a) Desgaitasuna duen hautagaiaren eskura bitarteko material eta giza baliabideak jartzea; behar dituen laguntzak eta euskarriak; laguntza-produktuak eta teknologia lagungarriak, parte hartzen duen probak egin ahal izateko; baita prozesuen informazioaren eta komunikazioaren irisgarritasuna bermatzea ere, eta prozesuak garatzen edo erabiltzen diren gune fisikoen eta euskarri edo kanal birtualen irisgarritasuna.
- b) Hautaketa-proben ariketak egiteko denbora gehigarri bat ematea.



- c) Desgaitasuna duten hautagaien egoera bereziek eskatzen dituzten egokitzapen arrazoizkoak egitea, bitarteko eta denboren egokitzapen orokorrekin konpontzen ez dituztenean.

Aginduak zehazten du giza baliabideen egokitzapenak honako hauek izan daitezkeela:

- Laguntza pertsonala.
- Pertsona gorrei, entzumen-desgaitasuna dutenei edo gor-itsuei irisgarritasunaren arloan arreta emango dien langile espezializatua, araudi espezifiko duena.
- Beste edozein laguntza edo euskarriko langile.

Halaber, ezartzen da sei hilabeteko epean desgaitasuna duten pertsonentzako hautaketa-probetan bitartekoen, denboren eta egokitzapen arrazoizkoen eskuliburu orokor bat onartuko dela.

ENPLEGU PUBLIKOAREN ALDEKO EPAIA

eginaren eginez duela gutxi Gasteizko Udalararen aurkako baiespen-epai bat lortu du, 2022ko EPEko 669 lanpostu lehiaketa bidez egonkortzeko ezohizko deialdiari buruz, egiaztatu baita deialdi horretan ez zela ezarri desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen nahitaezko erreserba.

Epaitegiak arrazoia eman dio **eginaren eginez** elkarteari, erreserba-kupoa ez betetzea legez kanpokoa dela adierazi, eta lehiaketa bidezko aukeraketa-sistema duen ezohizko deialdi horren deuseztasuna deklaratu baitu, ez duelako aurreikusten desgaitasuna duten pertsonen aldeko legezko erreserbarik.

Epaia irmoa denean, Udalak betearazi egin beharko du. Horretarako, deialdiari zegokion eta bertan errespetatu ez zen desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba gauzatzeko erabakiak hartu beharko ditu eta hori gauzatzeko egintzak eman beharko ditu. Udalak ez badu epaia bere borondatez betetzen, legez ezarritako epea igaro ondoren, epaia nahitaez betearazteko eskatu ahal izango zaio epaitegiari.

Epaia garrantzitsua da, berretsi egiten baitu egonkortze-prozesuak ezin direla salbuetsita egon desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa erreserbatzeko betebeharra betetzetik.

Hala ere, oraindik epaia ez da irmoa, eta, beraz, aurrerago jakinaraziko dizuegu epaia zertan den.

GUNE SOZIOSANITARIOA



Salatu dugu gure probintzian ez dagoela benetako gune soziosanitariorik, eta gure probintziako osasun- eta gizarte-eremuak koordinatzeko egungo mekanismoek ez dutela eraginkortasunik.

Oraintsuko **Osasun Ituna** gure parte-hartzerik gabe egin eta amaitu da, dibertsitate funtzionala duten pertsonen haien behar espezifikoak kontuan izateko eta arreta integrala jasotzeko duten eskubidea erabat alde batera utzita.

Osasun-sisteman dugun egoera prekarioa eta jasan ezina da. Talde medikoen ustez jada ez badago berehalako zeregin klinikorik, osasun-ingurunetik botatzen gaituzte, beste aukera egokirik eman gabe. Aldi berean, ezin gara gure etxeetara itzuli, pertsona askok mendekotasun-gradua hartu dugunez, eten-gabeko laguntza behar dugulako.

Arreta koordinatua eskaini ordez, gutxieneko osasun-arreta eskaintzeko prestatuta

ez dauden egoitza edo gizarte-zentroetara bideratzen gaituzte. Sistemen arteko desko-nexio horrek eskubideen urraketa larriak eta erakundeen axolagabetasuna eragiten ditu.

Badira dibertsitate funtzionala eta I. mende-tasun-gradua zuten pertsonak, bat-batean erori edo okerrera egin ondoren III. gradura modu traumatikoan eta ebaluaziorik eta era-kundeen laguntzarik gabe igarotzen direnak. Arabako ospitale edo egoitzetan ez da men-dekotasun-baloraziorik egiten une kritikoan, eta errealtate berriari aurre egiteko presta-tutako gizarte-baliabiderik gabe ematen dira altak.

Erantzun koordinaturik ez egoteak agerian uzten du gure lurraldean ez dagoela ere-du soziosanitario eraginkor eta humanorik. Ondorioak zuzenak dira: babesik eza, men-dekotasuna larriagotzea, autonomia galtzea eta bizitza duina izateko eskubidea urratzea.

Honako hau eskatzen dugu:

1. Gune soziosanitario erreala eta operati-boa premiaz sortzea, baliabide parteka-tuekin, protokolo komunekin eta ardura-dun identifikagarriekin.
2. Dibertsitate funtzionala duten pertsonak eta haiek ordezkatzeko dituzten erakun-deak osasun- eta gizarte-politikak plani-fikatzeko, ebaluatzeko eta erabakitze-ko prozesu guztietan benetan sartzeko.
3. **Osasun Ituna** berehala berrikus-tea, di-bertsitate funtzionalaren eta mendekota-sunaren ikuspegia txertatzeko.
4. Esparru sanitario, sozial eta komunita-rioen arteko asistentzia-jarraitutasuna bermatzea, hutsunerik eta biderapen desegokirik gabe.

Hala planteatu diogu Eusko Jaurlaritzako Arreta Soziosanitarioko zuzendariari, urria-ren 29an harekin egin genuen bileran.

IRISGARritasuna PROBINTZIAN



eginaren eginez Arabako Batzar Nagusie-tan agertu zen berriki, Gizarte Segurantzaren bulegoak, Bake Epaitegia eta Guardiako Erregistro Zibila hartzen dituen eraikinaren irisgarritasun falta larria salatze-ko.

Eraikina udal-jabetzakoa da, Guardiako Uda-larena. Beraz, erantzukizuna toki-administra-zioarena eta zerbitzua ematen duenarena da, hau da, Gizarte Segurantzarena.

Gaur egun, eraikina plataforma zeihar zahar-kitu baten bidez sartzen da. Plataforma ho-rren bidez sarrera nagusiko bederatzi mailak gairiditu nahi dira. Hala ere, indarrean dagoen araudiaren arabera, gailu hori ez da irisgarria, eta ezta pasatzeko modukoa ere. Beraz, sar-bidea ez da segurua, eta diskriminatzailea da mugikortasun urriko pertsonentzat.

Gure hitzaldian, irisgarritasun unibert-sala bermatzeko beharra azpimarratu genuen, eta printzipio horrek eremu publiko eta funtsezko zerbitzu guztiak arautu behar ditu. Eginaren eginez elkartetik eskatzen dugu eraikina modu duinean sartzeko beste irtenbide bi-deragarri batzuk azter daitezela edo, bestela,

zerbitzuak leku irisgarri batera eraman daitezela.

Ez da gertaera isolatu bat, Arabako probintzian dibertsitate funtzionala duten pertsona askok bizi duten egoeraren adibide bat baikiz, oinarritzko eskubideak urratzen dituzten oztopo fisikoak bere horretan jarraitzen baitute. Beste behin ere, aukera-berdintasunaren defentsarekin eta irisgarritasunaren arloko legeria eraginkortasunez betetzearekin dugun konpromisoa berretsi dugu, eta erakundeei premiaz jokatzeko eskatu diegu, XXI. mendean onartezinak diren egoera horiek amaitutzat emateko.

BIZIMODU INDEPENDENTEAREN BULEGOA IREKI DA ARABAN



Arabako probintziak dagoeneko badu Bizimodu Independentearen Bulego bat (BIB), desgaitasuna duten pertsonen autonomia eta parte-hartze aktiboa sustatzeko baliabide berri bat.

Geuk Erabakiz erakundeak kudeatzen du bulegoa. Eginaren eginez eta Down Araba elkarteek osatzen dute erakunde hori, eta laguntza eta aholkularitza pertsonalizatua eskainiko ditu bizimodu independentea izateko eskubidea gauzatzen laguntzeko, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko NBERen Konbentzioaren arabera. Zerbitzu horien artean, hauek dira nabarmenenak: laguntza pertso-

nalaren kudeaketa, eskura dauden baliabideei buruzko informazioa eta egunerokotasunarekin lotutako erabakiak hartzen laguntzea.

Bizimodu Independentearen Bulegoa abian jarzea erronka berri bat da aukera-berdintasunaren eta erabateko inklusioaren bidean aurrera egiteko, gure elkarte-mugimenduen aldarrikapen historiko bati erantzuten baitio. Hitzordua eskatzeko, deitu 945 024 666 telefonora edo idatzi info@oviaraba.eus helbidera.

EGINAREN EGINEZ ELKARTEAK AURREZ AURREKO JARDUERARI EGIN DIO BERRIRO LAUDION



eginaren eginezek berriro ireki du Laudioko egoitza, Ardantzazar gizarte-zentroan (Viña Vieja kalea, 6), eta, horrela, aurrez aurreko jarduerari ekin dio berriro herrian eta Aiaraldeko kuadrilla osoan.

Egoitza berriz irekitzeak, elkarteak koadrilan duen presentzia eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskubideen defentsarekin eta parte-hartze aktiboarekin duen konpromisoa indartuko ditu, eta aholkularitza, arreta eta ekintza asoziatiborako hurbileko gune bat eskainiko die. Hitzordua eskatzeko edo informazioa eskatzeko, deitu 684 80 53 39 telefonora edo idatzi info@eginez.org helbidera.

Gizarte-laneko egonaldiak: asteazkenetan (10:00-12:00 eta 17:00-19:00), hitzordua eskatuta.

IN MEMORIAM JUAN CARLOS SOLA



Joan den urriaren 22an Juan Carlos Sola galdu genuen, Fekoorreko zuzendaria 28 urtez, eta funtsezko pertsona eraldaketa sozialean eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideen defentsan.

Bere konpromisoa eta ikuspegia, eta Elkartean osatzen duten gainerako erakundeekin batera egindako lana, erabakigarriak izan ziren mugarri garrantzitsuak lortzeko: Irisgarritasuna Sustatzeko Legea, segregatutako eskolatik eskola arruntera igarotzea, enplegu arrunteko laneratzean aurrera egitea...

Bere ondareak bizirik jarraitzen du Fekoorren: gizarte inklusibo baten alde lan egitea, pertsona guztiok askatasunez eta berdintasunez bizi ahal izango garen gizarte inklusibo baten alde.

Eskerrik asko, Juan Carlos. Goian bego.

FEKOORREN ESTRATEGIA ERAIKITZEN



Ekainaren 15ean, “Etorkizuneko Kafea: FEKOORren estrategia eraikiz” antolatu genuen, Fekoor osatzen duten elkarten arteko elkarrikketa-gune bat, desgaitasunaren mugimenduak Bizkaian dituen erronkak zehazteko.

Topaketatik funtsezko hiru ideia sortu ziren:

1. Elkarrekin gizarte-eragile gisa aitortuak izan nahi dute, desgaitasunetik haratago ahotsa eta eragina dutenak.
2. Eredu babestuak eta asistentzialistak gainditzea aldarrikatzen dute, bizimodu independentea, parte-hartzea eta lidergo parte-katua bultzatzeko.
3. Komunitatea indartzearen, gazteak inplikatzearen eta beste gizarte-mugimendu batzuekin aliantzak ehuntzearen garrantzia nabarmentzen dute.

Parte-hartzeko prozesu horrek berretsi egin du elkarte-eredu inklusibo eta pluralarekin dugun konpromisoa, Bizkaia bidezkoago eta irisgarriago bat lortzen lagunduko duena eta elkarten eginkizun eraldatzailea aitortuko duena.

OSASUNA ETA IKUS- GARRITASUNA: BIZITZA DUIN BATE- RAKO BI ESKARI



Osasunaren eta inklusioaren alde lan egiten duten elkarteek aitorpena eta laguntza eskatzen dute bizitza duina bermatzeko.

Artritis Erreumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkarateak (LEVAR), Artritisaren Egunean (urriak 1), eskatu du min kronikoa faktore erabakigarritzat hartzeko desgaitasuna eta mendekotasuna baloratzean. Artritis Erreumatoidiak min etengabea eta askotan ikusezina eragiten du, eta baita nekea eta antsietatea ere. LEVARek gaixotasun horrekin bizi direnentzako laguntza eta ikusgarritasun handiagoa eskatzen du.

Bestalde, Argia Elkarateak, Pertsona Ostomizatuaren Mundu Egunean (urriak 4), larruazal periestomalaren zaintza bermatuko duen osasun-itun bat eskatu zuen, funtsezkoa baita infekzioak edo dermatitisa prebenitzeko. Horretarako behar diren produktuak (kremak, aerosolak, zapi bustiak) garestiak dira, eta, beraz, Argiak eskatu zuen Gizarte Segurantzak finantza ditzala.

Bi aldarrikapen horiek helburu komun bat dute: osasun-errealitateak aitortzea eta bizitza duin eta independente baterako behar diren laguntzak ziurtatzea.

LAGUNTZAILEA DOAN GARRAIO PUBLIKOAN



Bizkaiko Foru Aldundiak aitortutako **% 45eko desgaitasuna edo handiagoa eta mendekotasun-gradua (I, II edo III)** duen pertsona batekin bidaiatzen baduzu, garraio publikoan doan bidaiatu dezakezu.

Horrek esan nahi du laguntzaileak **ez duela txartelik ordaindu behar** eta ez duela Barik txartelik behar, betiere baldintzak betetzen dituen pertsonari laguntzen badio. Bidaiatzean, onuradunak bi aldiz pasatuko du Barik, baina **behin bakarrik kobratuko zaio**.

Bizkaiko garraio-titulu guztiei aplikatzen zaien salbuespen horren onuradun izateko, **eskaera formala** aurkeztu behar duzu Bezeroaren Arretarako Bulegoetan. Aurkitu non eskatu hemen: <https://www.ctb.eus/eu/bezeroarentzako-arreta>

ARBOLARTE: INTEGRAZIO-RAKO ETA GAIKUNTZARAKO ZENTROA



FEKOORek 22 urte daramatza **Arbolarte** zentroa kudeatzen. Helburua da desgaitasun fisikoa duten pertsonak **trebatzea eta ahalduntzea**, beren ingurunean eta komunitatean **bizimodu independenterako proiektua** garatu ahal izan dezaten.

Diziplina anitzeko talde bat dugu, honako hauek osatua: koordinatzaile-psikologoa, fisioterapeutak, logopeda eta estimulazio kognitiboa, teknologia berrietako espezialistak, integrazioaren monitoreak eta langile soziosanitarioak.

Zentrorra sartzeko, hainbat baldintza bete behar dira: **desgaitasun fisikoa** izatea eta mendetasun-gradua edo **% 60ko desgaitasuna edo handiagoa** izatea; Bizkaian bizitzea, eta **18 eta 64 urte** bitartean izatea. Plaza eskatzeko, interesdunek mendekotasun-balorazioarekin batera eskatu behar dute. Mendekotasun-balorazioa daukanak, Arreta eskaintzeko Banakako Plana (ABP) aldatzeko eskatu behar du Udaleko edo Aldundiko oinarritzko gizarte-zerbitzuetan.

Gehiago jakin nahi baduzu edo zentroa bisitatu nahi baduzu, eskatu hitzordua **Fekoorreko Gizarte Langilearekin**, telefono honetara deituta: **944 053 666**.

EZINTASUN IRAUNKORRAGATIKO PENTSIOEI BURUZKO GIDA



Fekoorren, lanerako ezintasun iraunkorragatikotiaziopeko pentsioei buruzko gida erabilgarri bat egin dugu, hau da, sisteman aldeaz aurretik kotizatu duenari ematen zaion prestazio ekonomikoa, baina gaixotasun edo lesio baten ondorioz, lanean jarraitu ezin duenari ematen zaiona.

Gure babes sozialeko sistemak, Erregimen Orokorrean, kotizaziopeko hiru pentsio mota nagusi aurreikusten ditu: Ezintasun Iraunkorrena, Erretiroarena eta Heriotzarena.

Argitalpena **www.fekoor.com** webgunean kontsulta daiteke, eta argitalpenaren helburu nagusia gai horri buruzko ezagutza erabilgarria sortzea da; izan ere, gai hori, konplexua iruditzen arren, funtsezkoa da pertsona askoren bizitzan.



GIPUZKOA

HEZKUNTZA INKLUSIBORAKO ESKUBIDEARI BURUZKO OHAR OROKORRA



Hezkuntza inklusiborako eskubideari buruzko 4. Ohar Orokorrari buruzko gida didaktiko bat egin dugu. Ohar hori Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak onetsi du.

Dokumentu honen helburua da Konbentzioaren 24. artikuluan garatzen den Ohar Orokorraren edukia modu erraz eta didaktikoan partekatzeko. Bertan, desgaitasuna duten pertsonen hezkuntza inklusiborako duten eskubidea aitorzen da. Hezkuntzarako eskubidea diskriminaziorik gabe bermatu behar da, aukera-berdintasuna oinarritzat hartuta, maila guztietan, bai eta bizitzan zeharreko irakaskuntzan eta erakunde akademiko publiko zein pribatuetan ere.

Batzordeak, besteak beste, honako gai hauek jorratzen ditu: premia indibidualen arabera behar diren arrazoizko egokitzapenak egiteko beharra, garapen akademikoa eta soziala ahalik eta gehien sustatzen duten inguruneetan laguntza-neurri pertsonalizatuak eta eraginkorrak ahalbidetzea, edo hezkuntza-sisteman irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatzea.

Dokumentua **elkarturen** webgunean kontsultatu dezakezu (www.elkartu.org).

RENFE ALDIRIEI BURUZ PARTE HARTZEKO PROZESUA

Elkartuk parte hartzeko prozesu bat egin du azken hilabeteetan, Renferen aldiriko tren-garraioaren irisgarritasun-baldintzak aztertzeko.

Dauden gabezia larrien jakitun izanik, eta gehienetan mugikortasun urriko pertsonen garraiobide hori erabiltzea eragozten dutenez, egoeraren diagnostikoa egin nahi izan dugu, baita zerbitzu publiko hori emateko baldintzak hobeto ditzaketen proposamenak egin ere.

Horretarako, Renferen Gipuzkoako geltokiak aztertu genituen, garraio-azpiegitura horien irisgarritasun unibertsalaren baldintzei buruzko oinarritzeko diagnostikoa edukitzeko.

Ondoren, online galdetegi bat zabaldu genuen, Renferen aldiriko tren-zerbitzuaren erabilerarekin lotutako hainbat alderdi aztertzeko, bai eta zerbitzu hori erabiltzea oztopatzen edo eragozten duten arrazoiak aztertzeko ere. Hainbat gai jorratu ziren, hala nola txartelak erostea, geltokietarako sarbidea eta barruan moldatzea, ibilgailuetarako sarbidea, mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako lekuaren baldintzak, laguntza behar duten pertsonentzako laguntza-zerbitzua, etab.

Emandako informazioa jaso eta aztertu ondoren, parte hartzeko tailer bat egin zen. Tailer horretan, desgaitasuna duten hainbat pertsonak sakonago aztertu zituzten galdetegietan adierazitako alderdiak, eta hobetzeko proposamen batzuk egin zituzten, agintari eskudunei helarazteko.

Jakin badakigu, gaur egun aldiriko trenbide-garraioa mugikortasun urriko pertsona gehienek ezin dutela erabili, baina uste dugu egindako prozesua eta diseinatutako proposamenak aukera bat izan daitezkeela mugikortasun-politiketarako hain garrantzitsua den herritarrentzako zerbitzu publiko hau hobetzeko, Euskadiko erakundeek eskumenak beren gain hartzen dituztenean.

OINEZKOEN PASABIDEEN IRISGARRITASUN FALTA SALATU NAHI DUGU



Joan den urrian idazki bat bidali genion Donostiako Udalari, berritutako Easo kaleko obrak gaizki egitea salatzeko eta hiriko oinezkoentzako pasabideen kudeaketa kaotikoa salatzeko.

Diseinu berrian, espaloiak gaizki behekatuta daudela antzeman dugu, eta eskailerak eta oztopoak sortzen dituzte. Easo kalearen egoera ez da kasu isolatu bat. Donostian, oinezkoentzako pasabideek ezaugarri desberdinak eta kontraesankorrak dituzte: pasabideak egiteko irizpide desberdinak erabili direla dirudi, baita pasabide berean ere. Uniformetasunik ezak nahasmena, segurtasunik eza eta hamaika oztopo eragiten ditu ibilbide irisgarriak behar dituztenentzat

eta aurretik ibilbideak nolakoak diren jakin behar dutenentzat, hala nola mugikortasun urriko pertsonentzat, gurgil-aulkiak erabiltzen dituztenentzat, taka-takekin dabilzanentzat, haur-orgak dituzten familientzat edo mugikortasun pertsonalerako gailuak erabiltzen dituztenentzat.

Horregatik, Donostiako Udalari eskatu diogu Easo kalean indarrean dagoen araudia ez betetzea zuzentzeko eta hiriko oinezkoentzako pasabideetarako eredu argi eta uniforme bat ezartzeko, espazio publikoaren erabileran herritarren autonomia, segurtasuna eta berdintasuna arriskuan jartzen duen kudeaketa kaotikoa amaitutzat emanez.

ERABAKIZ PROIEKTUAREN WEBGUNEAK



Erabakiz proiektu pilotuari esker, aldi batez probatu ahal izango da zer den modu independentean bizitzea egokitutako etxebizitza batean eta behar diren laguntzekin, eta dagoeneko webgune bat du horri buruzko informazioa emateko.

Webgune horretan bizimodu independentea zer den azaltzen da, eta proiektuari berari buruzko informazioa ematen da: zertan

datzan, zein pertsonak parte har dezaketen, helburuak, jorratzen dituen alderdiak, etab. Gainera, web-orrian, proiektuarekin lotutako dokumentuak eta ikus-entzunezko materiala daude, eta kontsultak egiteko edo, hala badagokio, desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizimodu independenterako eskubidea bultzatzea helburu duen proiektu batean parte hartzeko interesa dutenentzako harremanetarako datuak ematen ditu.

Web-orria kontsultatzera animatzen zaitugu!

TERRAZEI BURUZKO ORDENANTZEI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Azken hilabeteetan hainbat alegazio aurkeztu dizkiegu Donostia, Hondarribia eta Lasarte-Oriako udalerrietan hasiera batean onartutako terrazaren ordenantzei.

Proposamenen helburua da espazio publikoetan terrazak jartzearen ondorioz izan ohi diren irisgarritasun unibertsaleko baldintzen ez betetzeari erantzutea.

Horrela, irisgarritasunaren arloan indarrean dauden arauetan espazio publikoari buruz, bai terrazaren antolamenduari berari buruz ezartzen diren baldintzak bermatzeko behar diren aurreikuspenak ordenantzetan txertatzea eskatu dugu, eta baita horiek betearazteko behar den jarraipena egitea eta, hala badagokio, ez betetzearen aurka jardutea ere.

Era berean, terrazetan erabiltzen diren altzariak irisgarriak eta inklusiboak izateko betebeharra txertatzea proposatu dugu, pertsona guztiek erabili ahal izan ditzaten, berdintasun-baldintzetan.

ZARAUZKO HONDARTZAKO ERABILERA ETA JARDUEREN ORDENANTZA

Joan den urrian, Zarauzko hondartzako erabilerak eta jarduerak arautzen dituen ordenantza onartu zen, eta, **Elkartuk** aurkeztutako alegazioen ondoren, irisgarritasunarekin lotutako bi alderdi garrantzitsu sartu ziren.

Alde batetik, honako hau ezartzen da: “Zarauzko hondartzako espazio, instalazio eta zerbitzuek irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako irisgarritasun-baldintzak betetzen direla bermatuko dute, bai eta behar diren arrazoizko egokitza-penak egiten direla ere, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan aurreikusitako baldintzetan”.

Era berean, mugikortasun urriko pertsonentzako bainu egokituari dagokionez, honako xedapen hau sartu da: “Zarauzko hondartzak mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako bainu-zerbitzua bermatuko du gainerako zerbitzuak ematen diren uda osoan, hondartza erabiltzeko eta bainatzeko prozesu osoan behar diren baliabide pertsonalak eta laguntza-produktuak emanez. Era berean, zerbitzua behar bezala emateko leku, instalazio eta zerbitzuetan ezinbestekoak diren irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatuko dira, betiere Zarauzko hondartzaren ingurua-barrek une horretan horretarako aukera ematen badute, bereziki itsasoaren egoerak eta mareen eraginak”.

Gure ustez, lege-neurri horiek erabat eta benetan aplikatu behar dira, eta lagungarriak izango dira desgaitasuna duten pertso-nek Zarauzko hondartzako zerbitzuak eta instalazioak berdintasun-baldintzetan erabiltzeko.